

BIOTEKNOLOGIA ENPRESAK SORTZEKO ERAGILE ERABAKIGARRIAK EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN

Tesiaren egilea: Aitor Lizarza Martin

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea

Saila: Ekintzailetasuna, estrategia eta antolakuntza

Tesi-zuzendaria: Iñazio Irizar

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honen helburu nagusia, EAEn bioteknologia-klusterra sortzeko bidean, bioteknologia-enpresak sortzeko eragileak identifikatzea, aztertzea eta deskribatzea izan da.

Azterketa bibliografikoaren barnean ekintzailetasunaren, berrikuntzaren eta bioteknologiaren inguruan egon diren garapen teorikoak bildu eta aztertu dira.

Landa-lanean bi fase ezberdin izan dira. Lehenengoan, elkarrizketa ez-egitura-tuen bidez, EAEko 18 biozientzia-enpresa aztertu ziren. Lau faktore hartu dira kontuan: jarrera ekintzailea, ezagutza zientifiko-teknologikoak, finantza-iturriak eta inguruneke agenteak. Horrela, biozientzien esparrua oso zabala zela ikusita, eta bertako enpresak heterogeneoak, ikerketa-proiektuaren bigarren faseko objektua enpresa bioteknologikoetara soilik mugatu zen. Beraz, behin helburuak eta hipotesiak definituta, elkarrizketen eta datu-bilketaren bigarren faseari ekin zitzaion 2007ko otsailean. Bigarren fase horretan alderdi kuantitatiboa (ELGEren metodologian oinarritutako galdetegia) eta kualitatiboa (elkarrizketa erdi-egituratuak) landu dira. Datu-bilketa egiteko erabili den galdetegiak bi alderdi nagusi ditu: ekintzailea eta enpresa. Ekintzaileari dagokion atalean, profil demografikoa, motibazioa, formakuntza, esperientzia eta talde ekintzailearen inguruko datuak bildu dira. Enpresen atalean, ELGE erakundeak eta Niosik jarraitutako galdetegia ardatz hartuta, jatorria, datu ekonomikoak, sektoreak eta produktuak, pertsonak, finantzazioa eta aliantzen inguruko datu-bilketa osatu da.

Ondorioak lantzean, biozientzia enpresen sorrera XXI. mendean, bioteknologia eta bioekintzaileen karakterizazioa, eta prozesu ekintzailea azaldu dira. Ondoren, formulatutako hipotesien gaineko ondorioak jasotzen dira, eta, azkenik, etorkizunerako ikerketa-ildoak definitu dira.

Biozientzia-enpresen sorreraren inguruko ondorioak aztertzean, kontuan hartu dira ondorengo puntuak: biozientzia-sektorearen emaitzen bilakaera, jarrera ekintzailea, ezagutza zientifikoa, finantza-iturriak eta agente eragile nabarmenenak.

Bioteknologia-enpresen eta ekintzaileen karakterizazioaren inguruko emaitzen ondorioak azaltzen dira ondoren: jatorria, kokagunea, enpresa-taldeak eta datu ekonomikoak.

Azkenik, bioteknologia-enpresak sortzeko ekintzaileek bururatzen duten prozesu ekintzailearen gaineko ondorioekin amaitzen da ikerketa.